

JARDUERA-LIZENTZIA ETA IREKITZEKO LIZENTZIEN IRAUNALDIA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA

Jarduera eta irekitze lizentziak, beste edozein lizentzia bezala, baliogabetze eta deuseztatze erregimen orokorraren pean daude Legeak horrela espreski aurreikusitako kasuetan. Administrazioaren erabakiaren bidez lizentziak ezabatzeko kasu horien ondoan, badago iraungipenaren figura ere, alegia: lizentziaren titularrari lepora dakioken jarduerarik ezan oinarrituta, horretarako ezarritako epeetan lizentzia amaitzeko kasu gisa. Nahiz eta iraungipen figura hau batez ere hirigintza arlokoa izan (eraikitze lizentziak), jarduera eta irekitze lizentzietarako ere aplikagarria izan daiteke, baldin eta horrela espreski jasotzen bada udal ordenantza batean.

Jarduera bat irekitzeko edo instalazio bat baimentzeko prozeduran espediente bat tramitatzean hasierako fase bat dago, eskabidea aurkezten denetik jarduera edota obra-lizentzia ematen den arte luzatzen dena, eta bertan neurri zuzentzaile eta osagarriak ezartzen dira. Horren ondoren bigarren fasea hasten da; fase horretan interesatuak proiektatutako obrak eta instalazioak egiten ditu eta irekitzeko lizentziarekin edo instalazioa martxan jartzearekin amaitzen da espedientea, instalazioa edo jarduera onartutako proiektuarekin eta neurri zuzentzaileekin bat datorrela egiaztatu ondoren. Zalantzarik gabe, prozesu honek gutxienezko jarraitasun bat behar du, bestela bere zentzua galdu lezakeelako.

Kontutan izan behar da jarduera eta irekitze lizentziak ematen direla baldintza teknikoetan eta kokapen baldintzetan oinarrituta, eta baita eskabidea egiten denean aplikagarriak diren neurri zuzentzaileei lotuta ere; eta ingurugiroko araudia aldakorrenen artean dagoela. Horregatik, jarduera bat erabili gabe edo instalazio bat martxan jarri gabe denbora luzean egoten bada, egoera horrek eragin erabakigarria izan dezake bere garaian emandako lizentzian berorren baldintzak hutsalduz, tartean jarduera erabiltzeko baldintzak gogortu badira edota murriztailegoak bilakatu badira.

Jendaurreko ikuskizun eta jolas jardueretara zuzendutako establezimenduetan aipatzekoa da, halaber, Udalak ordenantza bat onestu zuela pertsonak zaratatik eta bibrazioetatik babesteko (1998ko otsailaren 16ko

GAO), eta bertan mugak eta establezimendu mota horien arteko gutxieneko distantziak ezartzen direla. Zirkunstantzia horren ondorioz, itxurazko jarduera-lizentzia bat mantentzen bada, hau da, baimendutako jarduera hori erabiltzen ez bada, erraztu eta bultzatu egingo da espekulazio hutsa den helburu bat, inguruan ostalaritzako beste lokal bat ireki nahi luketen hirugarrenen kaltetan.

Horregatik, iraungipen figura lizentzia-mota hauei aplikatzea eta Udalak zein kasutan eta epetan formalki erabaki ahal izango duen arautzea komeni dela ikusita, udal ordenantza hau idatzi da bertan jarduera-lizentzia eta irekitze-lizentzien iraunaldia ondorengo artikuluen arabera arautzeko:

1. artikulua.- Kontzeptuen definizioa. Jarduera-lizentzia eta irekitze-lizentzia

1. Jarduera-lizentzia zera da: legeak edo arautegiak sailkatutzat jo duen jarduera edo instalazioa ezartzeko, hedatzeko edo aldatzeko ahalmena ematen duen udal-lizentzia. Baldin eta sailkatutako jarduera jartzeko obrak egin behar badira eta hauentzat derrigorrezkoa bada hirigintza-lizentzia, interesatuak bi lizentziak batera eska dezake, baina obra-lizentzia ezin izango da eman alde aurretik edo aldi berean jarduera-lizentzia ematen ez bada.

2. Irekitze-lizentzia zera da: iharduera edo instalazioa bat, sailkatuta egon edo ez egon ere, martxan jartzea baimentzen duen udal-lizentzia, eskatzaileak aurkeztutako proiektuarekin eta dokumentazioarekin eta Administrazioak ezarritako neurri zuzentzaile edo osagarriekin ados dagoela egiaztatu ondoren.

3. Iharduera berritzat joko da eta jarduera-lizentzia edota irekitze-lizentzia lortzeko prozedura berria tramitatuko beharko dute:

- a) Establezimendu berriak.
- b) Ihardueren lekualdaketak.
- c) Iharduera aldaketak eta lokal batean egiten direnen zabaltzeak, nahiz eta titular bera jarraitu.

- d) Sailkatutako iharduerak barne dituzten lokalen berrikuntza handiak eta beren azaleraren funtsezko handiagotze edo gutxiagotzeak.
- e) Transferentziak edo titular aldaketak, baldin eta aurreko zirkunstantziaren bat ematen bada.

4.- Lizentziak eskualdatzen direnean, lokala nahiz jarduera aldatu edo berritu gabe, interesatuek Udalari jakinarazteko obligazioa dute, hark jakin dezan zein den jardueraren titular berria eta zeinek duen erantzunkizuna lokalaren funtzionamenduan. Udalak ez du onartuko titulartasun aldaketa, lokalak bete beharreko baldintzak mantentzen ditueneko administrazio-egiaztapena egin arte.

2. artíkulu- Jarduera eta irekitze lizentzien iraunaldia

1. Jarduera lizentziek mugagabeko iraunaldia dute; eta ondorioak sortzen dituzte baldin eta, ordenamendu juridikoaren arabera, haien ezabatzea eragiten duen zirkunstantziaren bat gertatzen ez den bitartean, edo haien iraungipena erabakitzen ez den bitartean hurrengo artikuluan aipatuko diren kasuetan oinarrituta. Nolanahi ere, lizentzia ematerakoan ezarritako neurri zuzentzaileak berrikusi ahal izango dira uneoro indarrean dagoen araudiaren arabera, eta egokitu beharko dira zientzi eta teknika-aurrerakuntzak dakartzan berrikuntzetara.

2. Jardueraren bat irekitzeko edo martxan jartzeko lizentziak baliogabetu eta ezabatu egiten du alde aurretik lokal horri berari emandako beste edozein jarduera edota irekitze lizentzia, espreski aurrekoaren iraupena adierazten ez bada izan ezik.

3. artíkulu- Iharduerarik ezagatik lizentziak ezabatzea. Iraungipenaren adierazpen formala

Iharduerarik eza oso luzeko egoerak, hain zuzen ere, lizentziaren erabilerari isileko uko egitearekin pareka daitezkeen eta indar-galtzearen adierazpen zehatzik behar ez duten egoerak alde batera utzita, jarduera edota irekitze lizentzia baten iraungipena erabaki ahal izango da formalki, kontraesanezko espedientea tramitatu eta gero, ondorengo epe eta kasuetan:

- a) Sailkatutako jarduera jartzeko obrak egitea beharrezkoa izanik, jarduera-lizentzia baimendu zenetik kontatuta hiru hilabeteko epean

interesatuak haiek egiteko lizentzia eskaera eta proiektu teknikoa aurkezten ez dituenen.

- b) Jarduera-lizentzia eman zenetik urte bete igarota, eta obrak egiteko espreski epe luzeagoa ematen bada izan ezik, lizentziaren titularrari lepora dakizkioken arrazoiengatik irekitze-lizentzia eman gabe dagoenean.
- c) Irekitze-lizentzia eman eta gero, jarduera sei hilabeteko epean hasten ez bada, edo hasi eta gero urte bete baino gehiago geldirik egoten bada.

Azken Xedapena

Ordenantza hau indarrean sartuko da, Udalak behin betikoz onartu ondoren, bere testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta hamabost egun pasa eta gero.

EGINBIDEA.- Jasoarazteko Ordenantza hau, hasierako izaeraz, 1999ko urriaren 27an egindako osoko bilkuran onestu zuela Udalbatzarrak.

Zarautzen, 2000ko urriaren 28an
Idazkaria

EGINBIDEA.- Jasoarazteko, jendaurrean egon zen bitartean inolako alegaziorik aurkeztu ez zenez, Ordenantza behin-betiko onestua geratu zela eta Probintziako Aldizkari Ofizialean 1999ko abenduaren 28an (zk. 247) argitaratu zela.

Zarautzen, 1999ko abenduaren 29an
Idazkaria